

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1306

EBAZPENA, 2015eko martxoaren 6koa, Hezkuntza Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen zuzendariarena, administrazio-espeditentea bidali egiten dela jakinarazteko eta prozeduran interesaturiko pertsonak epatzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak 41/2015 zk.ko prozedura arruntari buruzko administrazio-espeditentea bidaltzeko eskatu du. Prozedura hori Estatuko Administrazioak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko urriaren 22ko Aginduaren aurka jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren ondoriozkoa da (Agindua, 2014ko urriaren 22koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta -laguntzetarako 2014-2015 ikasturteko deialdia egiten duena, 2014ko urriaren 28ko EHAA, 205.zk.).

Hori dela eta, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautu duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 49.1. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Eskatutako espeditentea bidaltzea Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusira.

Bigarrena.– Prozeduran interesdun izan daitezkeenak epatzea, hain zuzen ere, euren interesak defendatzeko egoki baderitzote, bederatzi eguneko epean aipatutako prozeduran pertsonatu daitezzen, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua ematea.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 6a.

Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen zuzendaria,
JOSU AGUIRRE GOITIA.